



LEINTZ UDAL-EUSKALTEGIA MANKOMUNITATEA

Euskarako irakasleen lan poltsa sortzeko deialdiaren oinarriak

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA MANKOMUNITATEA

Leintz Udal Euskaltea Mankomunitatean sor daitezkeen euskara irakasle beharrak betetzeko lan-poltsa osatzeko lehiaketa arautuko duten oinarriak.

Lehenengoa. Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua, lehiaketa irekiaren bidez Lan-poltsa bat osatzea da, ondokoetarako balioko duena:

- a) Irakasleak hartzea Leintz Udal Euskaltegian eskolak emateko, aldi baterako eta ikasle hazkunderari erantzuteko.
- b) Gaur egungo irakasle titularren hutsuneak betetzea gaixotasun baja edo bestelakoengatik lanera etorri ezinean gertatzen direnean.

Bigarrena. Kontratazioa.

Pertsona aukeratuekin izenpetuko den kontratua Leintz Udal Euskaltea Mankomunitatearen beharren arabera izango da.

Hirugarrena. Funtzioak.

Lanpostuaren funtzioak ondoko hauek guztiak izango dira:

- Euskara eskolak ematea.
- Eskolak programatu eta prestatzea, horretarako egokienak diren irizpide pedagogikoen arabera.
- Ikasleei agindutako lanak jarraitu eta zuzentzea.
- Ikasleen ebaluazio jarraitua eta beharrezkoak liratekeen probak egitea.
- Material didaktikoa eta euskaltea bera ondo erabili eta erabilaraztea.
- Ikasleen arreta erakarri eta helburuak erdiesteko material didaktikoa moldatu eta sortzea.
- Kanpo ekintzak antolatzea.
- Material didaktikoa antolatu eta sailkatzea.
- Irakasle-batzaren bilera, koordinazio bilera, ebaluazio bilera eta bilera pedagogikoetan parte hartzea.
- Euskaltegiaren Kurrikulu Proiektuaren osaketan parte hartzea.
- Lanposturako gaitasuna mantentzea, profesionalentzako ikastaroetan parte hartuz.
- Euskara maila zehazteko sarrera-probak prestatu eta egitea.
- Material berria antolatzea.



- Bere mailari dagozkion bestelako zereginak, horretarako prestakuntza jaso badu.
- Bere ardurapean dagoen mailari dagozkion oroitidazki edo memoriak idatzi, irakasle-klaustroak egingo dituen bileretan aztertzeko.
- Ikasleen asistentzia-kontrola eraman.

Laugarrena. Izangaiek bete beharreko baldintzak

1. Hautaketa-prozesu honetan parte hartu ahal izateko, hautagaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitzen denean:
 - a. Europar Batasuneko kide diren estatueta baten herritartasuna izatea, edo Europar Batasunak egindako eta Espainiako Estatuak berretsitako Nazioarteko Itunei jarraikiz, langileen zirkulazio askea aplikatzen zaion estaturen bateko herritarra izatea.

Parte hartu ahal izango dute, baita ere, Europar Batasuneko kide diren estatueta herritarren ezkontideek, betiere zuzenbideko banaketarik gabekoak badira; baita ere bere ondorengoak eta bere ezkontidearenak, baldin eta zuzenbideko banaketarik gabekoak badira, eta ondorengo horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiagoak badira, edo adin horretatik gorakoak, baina bere pentzuan bizi direnak.

Lan-hitzarmeneko pertsonala izaki, aurreko paragrafoetan agertzen ez diren atzeritarrek ere hartu dezakete parte, betiere, espainiar estatuoko egoiliarak badira. Hautatuak aterako balira, administrazioaren baimena ziurtatu beharko dute kontratuaren xede den jardura burutzeko, betiere, kontratua formalizatu baino lehen.
 - b. 18 urte beteak izatea eta derrigorrezko erretirorako adinik ez edukitzea.
 - c. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago, Irakasle-ikasketak eginda edo bestelako unibertsitate graduren bat edo honen baliokidea izatea. Halaber, onartzekoak dira 1984ko ekainaren 8ko Aginduak araututako homologazio probak gainditu zituzten irakaslegaiak.
 - d. Hirugarren edo laugarren hizkuntz eskakizunari dagokion ezagutzaren jabe dela egiaztatzea.
 - e. Lanpostuaren berezko egitekoak normaltasunez burutzea galarazten duen gaixotasun eta akats fisiko nahiz psikikorik ez izatea.
 - f. Disziplina espediente bidez inolako Administrazio Publikoren zerbitzuetatik bazterturik ez egotea edota egiteko publikoetan aritzeko ezgaiturik ez egotea.
2. Deialdian parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea amaitzean, eskatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte, eta hautaketa-prozesuak iraun bitartean mantendu.



Bosgarrena. Eskabideak aurkeztea

Lehiaketan onartua izatea eskatzeko eskabideak, Leintz Udal Euskaltegiko lehendakariari zuzenduko zaizkio, 2021eko uztailaren 2a baino lehen eta ondoren zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte, baztertuak ez izateko:

- a. Deialdiaren 4. oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute izangaiek, beti ere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, f) atalean adierazi dena izan ezik.

Era berean, lehiaketan baloratuko diren merituei buruzko datuak ere adierazi behar dituzte, behar bezala egiaztaturik. Ez dira baloratuko eskabide-orriarekin batera azaltzen eta egiaztatzen ez direnak.

- b. Horiez gain, ondorengo dokumentazioa aurkeztuko da eskariarekin batera:

- NAren fotokopia.
- Eskatutako euskararen ziurtagiriaren eta titulazio akademikoaren fotokopia.
- Deialdi honek kontuan hartu eta eskatzaileak aitortzen dituen merezimenduen agirien fotokopia.
- Herri Administrazioetan betetako zerbitzuak organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, kategoria profesionala eta betetako lanpostua, burututako funtzioak, lan egindako denbora eta lanaldi erregimena zehaztuz.

Enpresa pribatuetan izandako esperientzia enpresak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da, betetako lanpostua eta burututako funtzioak, lan egindako denbora eta funtzio horietan emandako denbora zehaztuz. Gainera, Gizarte Segurantzako ziurtagiria beharko da, edo, hori ezean, agiri fiskala. Lan kontratuaren kopia ere baliozkoa izango da, Gizarte Segurantzako ziurtagiriarekin batera aurkezten bada.

Langile autonomoek lizentzia fiskalaren kopia beharko dute, autonomoen erregimenera egindako kotizazioen ziurtagiria edo jarduera ekonomikoetarako zergan altan egondako denborari dagokion ziurtagiria, egindako lan profesionaleri dagokien dokumentazioaz gain.

Prestakuntza ikastaroak egiaztatzeko, ziurtagiriaren kopia beharko da, ikastaroa eman duen erakundearen izena, ikastaroaren izena, iraupena, eta, ahal bada, programazioa. Ikastaroaren iraupena ordutan adierazi ezean, epaimahaiaren esku geldituko da baloratu edo ez erabakitzea.

Eskabideak aurkezteko epea hau izango da: 2021eko uztailaren 2a.



- c. Eskabideak, behar bezala izapidetuak, Leintz Udal-Euskaltegiaren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira (NAFARROA, 2 – 4 – 20550 ARETXABALETA) goizeko 9:00etatik 13:00etara edo telematikoki Eskoriatzako edo Aretxabaletako udalen wed-orrietan:

www.eskoriatza.eus

www.aretxabaleta.eus

Seigarrena. Izangaiak onartzea. Deialdiak eta jakinarazpenak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrenda onartuko du Leintz Udal Euskaltegiko lehendakariak eta Leintz Udal-Euskaltegiko iragarki taulan argitaratuko du.

Era berean, erabaki horretan bertan agertuko dira, epaimahai kalifikatzailearen kide titular eta ordezkoen izendapena.

Aipatutako zerrendatik kanpo geratu diren izangaiak 5 egun naturaleko epea izango dute, iragarki taulan argitaratutako egunaren biharamunetik kontatzen hasita, zerrendatik kanpo geratu izana arrazoitu duten akatsak edo hutsegiteak zuzentzeko.

Behin-behineko zerrenda hori behin betikotzat hartuko da, erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz. Erreklamaziorik aurkeztuz gero, onartu edo baztertu egingo dira, behin betiko zerrenda onartzeko aurrekoaren modu berean argitaratutako den erabaki berrian.

Hautaketa prozesuari buruzko bai epaimahaiaren iragarki eta jakinarazpen guztiak, Leintz Udal-Euskaltegiaren iragarki taulan argitaratuz egingo dira.

Zazpigarrena. Kalifikazio epaimahaia

Merituak kalifikatuko dituen epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua:

- Leintz Udal-Euskaltegiko lehendakaria edota honek gaitutako ordezkaria.

Epaimahaikideak:

- Batzorde Gestioileko-kideak
- Udal Euskaltegiaren zuzendaria.
- Langileen ordezkari bat, Euskaltegiak duen sindikatu-ordezkaritzak izendatua.



Idazkaria:

- Eskoriatzako udaleko idazkaria.

Epaimahaia ezingo da eratu kideen erdia baino gehiago bertaratuko ez balitz eta, nolana ere, han izan beharko dute beti Epaimahaiburuak eta idazkariak. Erabakiak gehiengoaren botoz hartuko dira eta berdinketa gertatuko balitz, epaimahaiburu lanetan diharduenak erabakiko du. Epaimahaiaren idazkariak ez du botoa emateko ahalmenik.

Epaimahaiaren kideek ezin izango dute esku hartu, eta izangaiek ezetsi ahal izango dituzte, urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Epaimahaiak hartuko du oinarri hauek ezartzerakoan sor daitezkeen zalantza guztien gaineko erabakia, bai eta aurrekusiak ez dauden egoeretan zer egin behar den ere.

Zortzigarrena.- Aukeratzeko prozesua

Epaimahaiak, lehiaketa honetan, ondorengo merituak baloratuko ditu, oinarri hauetan xedatutakoaren arabera eskabidean aipatuak izan badira eta eskatutako dokumentuen bidez egiaztatu badituzte izangaiek, beti ere:

1. HABEk ziurtatutako esperientzia irakaskuntzan: 5 puntu gehienez:
 - a. Euskaltegi publiko batean irakasle lanetan aritutako 100 orduko 0,2 puntu.
 - b. Euskaltegi libre edo homologatu batean, irakasle lanetan aritutako 100 orduko 0,1 puntu. Aurkeztutako agirietako ordu kopurua 100 ordu baino gutxiagokoa bada, proportzionalki barematua izango dira.
2. Titulu akademikoak: (ez dira osagarriak)
 - a. Euskal Filologian Doktoretza: 4 puntu
 - b. Euskal Filologian lizentziatura edo gradua: 3 puntu
 - c. Magisteritza Euskal Filologian: 2 puntu
 - d. Irakasle-titulua: puntu 1
3. Helduen euskara irakastearekin zerikusi duten HABEk, EHUK, UNEDek, UEUak edo HAEEK emandako ikastaroak; 2010eko urtarriletik aurrera burututakoak baino ez dira kontuan hartuko: gehienez 3 puntu:
 - a. 10 edo ordu gutxiagoko ikastaroak, 0,2 puntu.
 - b. 11tik 50 ordura bitartekoak, 0,3 puntu.
 - c. 50 ordutik gorako ikastaroak, 0,5 puntu.
 - d. Orduak zehaztu gabe dituzten ikastaroak, 0,1 puntu.

Informatika ezagutzari buruzko ikastaroak hurrengo puntuan baloratuko dira.



4. Informatika ezagutza: gehienez 2 puntu:
 - a. IT txartelak, 0,5 puntu bakoitzeko: gehienez puntu 1.
 - b. Moodle ikastaroak, 0,5 puntu bakoitzeko: gehienez puntu 1.

Aipatutakoez gain ez da beste agiririk edo ikastarorik baloratuko.

5. 4. hizkuntz eskakizuna: puntu 1

Bederatzigarrena. Merituen kalifikazioa, Epaimahaiaren proposamena eta agiriak aurkeztea.

Lehiaketan lortutako puntu guztiak batu eta horixe izango da izangai bakoitzaren azken kalifikazioa.

Puntuazio bera lortuko balute hainbat izangaik, irakaskuntzan eskarmentu gehien egiaztatu duenaren aldekoa izango da erabakia, eta hala ere, berdinketak iraungo balu, zozketa bidez erabakiko da.

Merituen kalifikazioa amaitzean, epaimahaiak iragarki taulan jarriko du jendaurrean izangaien zerrenda hurrenkeraren arabera.

Lan-poltsako zerrendako lehentasun ordena erabakigarria izango da beharrak betetzeko, beti ere, lan poltsak kudeatzeko Leintz Udal Euskaltegiak onartutako araubideak ezartzen dituen irizpideei jarraituta.

Leintz Udal Euskaltegiak izangaiarekin harremanetan jartzerik lortzen ez badu edota izangaia Leintz Udal Euskaltegiaren deiarri erantzuten ez badio, lan-poltsan agertzen den hurrengo izangaiari deituko zaio.

Lan-poltsa osatzeko proposatutako izangaiek ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte, epaimahaiaren akta argitaratzen denetik kontatuta 10 egun igaro baino lehen:

- a. Egitekoak betetzea galaraziko dion inolako gaixotasun edota akats fisiko nahiz psikikorik ez duela egiaztatuko duen mediku-ziurtagiria. Elbarritasunen bat duten izangaiek, gainera, dagozkien egitekoak betetzeko gai direla adierazten duen ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- b. Disziplina espedienteren baten bidez edozein administraziotan jarduteko ezgaiturik ez dagoela edota 53/1984 Legean eta 598/1985 Errege Dekretuan aurreikusten diren bateraezineko zioetan ez dagoela sartuta dioen zinezko aitortpena.
- c. Deialdi honetan eskatutako tituluaren fotokopia.



Hamargarrena. Gora-beherak.

Epaimahaiak ahalmena izango du sortzen diren zalantzak erabakitzeko eta oinarri-arau hauetan ezarritakoarekin bat etorritz, lehiaketa ondo burutu dadin behar diren erabakiak hartzeko.

Epaimahaiak proposamena egingo dio Leintz Udal Euskaltea Mankomunitateko Batzorde Gestioileari eta honek dagokion erabakia hartuko du.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta horietatik eta Epaimahaiaren jardueratik ondorioztatu daitezkeen administrazio-ekintza guztien kontra egin dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean, urriaren 1ekoan, zehaztutako kasuetan eta bertan ezarritako moduan.

Aretxabaletan, 2021eko maiatzaren 19an

Leintz Udal Euskaltea Mankomunitatearen lehendakaria